

14 GAIA. ERRODAMENDUAK

Erabaki ezazu baieztapen bakoitza egiazkoa ala faltsua den:

- 1) Arrabolen errodamenduak karga ertaineko aplikazioetan erabiltzen dira: ukipen-azalera txikiagoa dutenez, karga-ahalmen txikiagoa dute, baina kontrapartida gisa bero gutxiago sortzen da, eta, beraz, biraketa-abiadura handiagoa izan behar du.
- 2) Errodamendu bat aukeratzeko orduan, espazio jakin batean sartu behar da, kargak jasateko gai izan behar du, eta bere bizitzan zehar inpaktuak, azelerazioak, bibrazioak, korrosioa, zikinkeria, hezetasuna, tenperatura eta abar jasan behar ditu.
- 3) “Bizitza nominala (L_{10})” honela definitzen da: barne-eraztunaren biraketa-kopurua (kanpoko eraztun finkoa), lehenengo neke-sintomak errodamendu berdinen talde baten %90ean agertu gabe (FIDAGARRITASUNA: %90; $R = 0,9$).
- 4) L_{10} bizitza nominala aldatu egiten da aplikatutako karga-balioaren arabera; zenbat eta karga handiagoa aplikatu F , orduan eta handiagoa da L_{10} .
- 5) C karga-ahalmen dinamiko gisa definitzen da L_{10} iraupeneko balio jakin bati dagokion F -ren balioa, eskuarki milioi bat bira egiten dituen. Nolanahi ere, fabrikatzaileak adierazi behar du L_{10} -ren zer baliori dagokion bere katalogoan agertzen den C kapazitatea.
- 6) Bola-errodamenduek karga erradialak bakarrik jasan ditzakete; arrabol zilindrikoetakoek, berriz, karga axialak eta/edo erradialak xurga ditzakete.
- 7) Biraketa oso mugatuak eta abiadura txikikoak dituzten aplikazioetako errodamenduetan, errodamenduaren aukeraketa (gutxienez hasierako hautaketa) C kapazitate dinamikoaren arabera egiten da.
- 8) Arrabol konikoen errodamenduetan, karga erradialak karga axial bat eragiten du:

$$F_a = \frac{0.47 \cdot F_r}{K}$$

- 9) Lubrifikazioak film bat sartzan du lagin-pista ukipen-gainazalen artean. Hauek dira lubrifikazioaren helburu nagusiak: ukipeneko marruskadura murriztea (eta, horrekin batera, higadura eta beroa), beroa banatzen eta xahutzen laguntzea, ukipen-gainazalen korrosioa prebenitzea eta errodamenduaren osagaiak babestea zikinkeria sartzan denean.
- 10) Fabrikatzaileen katalogoek errodamenduak muntatzeko xedapenei buruzko azalpen zehatzak ematen dituzte. Ohikoena da ardatzak bi errodamendu izatea mutur bakoitzean; kasu horretan, karga axiala bi errodamenduk jasan behar dute.